



BERGARA

UDAL ALDIZKARIA



Harixarekin euskaraz josten





AURKIBIDEA

- 2. UDALETXETIK
- 3. ALAIN VIVAS ENPRESAREKO LEHENDAKARIARI ELKARRIZKETA
- 4-5. OXIRONDO AZOKAREN BIZIBERRITZEA
- 6. 2022-23 IKASTURTERAKO ERRONKAK
- 7. ZTB JARDUNALDIAK
- 8. ZUBIETA ETA MASTERREKA KALEETAKO BIRGAITZEA
- 9. ANDER ZANGITU BERENER KOOPERATIBAKO KIDEARI ELKARRIZKETA
- 10. EHUNDUREN BULEGOAREN IREKIERA
- 11. BERGARAKO ORTU KOMUNITARIOAK
- 12-13. BERGARA HOBETZEN. URTEAN EGINDAKO LANAK
- 14. 'ARIN' EGUNEKO ARRETA-ZENTROA
- 15. ADIMEN GAITASUN HANDIA DUTEN IKASLEAK
- 16-17-18. LABURRAK
- 19. KOLABORAZIOA. LABORATORIUM MUSEOA
- 20. KOLABORAZIOA. UDAL ARTXIBOA
- 21. KOLABORAZIOA. DEBAGOIENA 2030
- 22-23. ALDERDIEN IRITZIAK. UDALBATZAKO KIDEEKIN HARREMANA EGITEKO BIDEAK
- 24. AINHOA AGIRREBEÑA KUKUBASO ELKARTEKO LEHENDAKARIARI ELKARRIZKETA

2022ko azaroa

© Argitaratzailea: Bergarako Udala
Egilea: Mundu Mira Kooperatiba Elkartea
Azaleko argazkia: The Badass Project

PERTSONEK EGITEN DUTE

Konturatzerako hasi dugu legealdi honetako azken ikasturtea. Hasterako definitu ditugu datozen hilabeteetarako erronkak, eta ilusioarekin eta gogotsu ekingo diet Gobernu taldeko kideekin batera, aurreko ia hiru urte eta erdian aritu garen ilusioarekin, bergararren etorkizun hobea sortzeari begira ari garelako, bide horretan konprometituta.

Ikasturterako izaera berezia duten proiektuak ditugu esku artean, aurretik esan dugunez. Azoka biziberritzea, edota Arrizuriagako birgaitzea eta bertan garatuko den proiektua definitzea, esaterako. Bereziak dira eraikinetatik harago doazen proiektuak direlako, elkarlanaren uza izango direlako. Hori delako gure egiteko modua.

Eta elkarlanaz ari naizela, pertsonak aipatu nahi nituzke. Proiektuak pertsonak egiten eta gauzatzen baitituzte. Pertsonak erdigunean jarri nahi ditugu, horrela aritu gara orain arte ere, eta bidea pertsonekin batera egin dugu. Arlo pertsonalean bezala, udal jardunean ere, arrastoa uzten dute pertsonak. Erronkak, nahiak, ametsak betetzen laguntzen baitute. Pertsonengatik egiten dugu guztia, eta aldi berean, hori pertsonak egiten dute posible.

LAS PERSONAS IMPORTANTAN

Sin apenas darnos cuenta ya hemos iniciado el último curso de esta legislatura. Para dar comienzo al curso ya teníamos definidos los retos para los próximos meses, que afrontaré con ilusión y entusiasmo junto a las personas que conforman el equipo de Gobierno, como lo hemos hecho durante estos casi tres años y medio, porque estamos trabajando para crear un futuro mejor para la ciudadanía de Bergara, comprometidas en el proceso .

Tenemos entre manos proyectos que gozan de un carácter especial, como ya hemos dicho anteriormente. Como son la revitalización del mercado, o la rehabilitación de Arrizuriaga y la definición del proyecto a desarrollar en su interior. Son especiales porque son proyectos que van más allá de las obras de los edificios, y serán fruto de la colaboración. Porque esa es nuestra forma de hacer.

Y hablando de colaboración, me gustaría hablar de las personas. Porque los proyectos los hacen y los ejecutan las personas. Queremos poner a las personas en el centro y recorrer el camino con ellas. Al igual que en lo personal, en el ámbito del trabajo municipal, las personas también dejan huella, porque las personas importan. Ayudan a cumplir los retos, deseos y sueños. Todo lo que hacemos lo hacemos por las personas, y al mismo tiempo son las personas las que lo hacen posible.

“Harixak elkarrengandik ikasteko aukera eta taldearen indarra emango dizkigu”

38 entidades del municipio han firmado el convenio 'Harixa', comprometiéndose, cada una desde su realidad actual, a dar pasos en la normalización del euskera en el ámbito laboral.

Argazkia: The Badass Project

Lan-munduan euskara sustatzeko helburuarekin Harixa programa sortu zuen orain urtebete pasa Bergarako Udalak. Programaren barruan 38 entitatek hitzarmena sinatu dute urriaren 25ean, Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroan egindako ekitaldi batean. Sinatzaileetako bat da Enpresare elkarte eta baita egitasmoan sortu den lan-mahaiko kide ere. Bertako lehendakari da Alain Vivas.

Harixa hitzarmena sinatu du Enpresare elkarteak. Zer da?

Lan-munduan euskara sustatzeko proiektua da. Bergaran dagoen egoerara gerturatzeko bidea izan daiteke, gaur egun eten bat baitago lan munduan dagoen egoera soziolinguistikoaren eta beste alor batzuetan dagoenaren artean; eta beste batzuei adierazteko hizkuntza berezi bat dugula, eta hau balio erantsi bat dela. Lan-mahaia sortu da proiektuak aurrera egin dezan, izaera desberdina duten erakundeekin, eta Enpresarek lan-mahai horretan parte hartzen du.

Zein motatako eragileak daude?

Izaera desberdineko eragileak daude. Ibilbide desberdina dutenak. Enpresak, elkarteak, ikastetxeak, banketxeak.... Bakoitzak bere esperientzia profesionalak eta pertsonalak mahai gaineratuko ditu, eta elkarrengandik ikasteko eta kezkek partekatzeko balioko digu.


Konpromiso batzuk hartuko dituzue hitzarmenarekin.

Konpromiso orokorrak daude, denentzat, eta zehatzak daude, bakoitzak hartuko dituenak.

Badaude enpresak euskara plan bat daukatenak, beraz martxan dagoen proiektuari bultzada bat emateko aukera izango dute, beste batzuk, berriz, euskarari lotutako proiektuan lehen pausoak emango dituzte. Beraz, enpresa bakoitzak hartuko dituen konpromisoak oso ezberdinak izango dira.

Zein onura ekarriko dizkie enpresei?

Elkarrengandik ikasteko aukera egongo da, taldearen indarra nabarmenduko nuke. Elkarrekin indartsuagoak gara, eta enpresa munduan etekinak ateratzeari begira egoten gara gure egunerokotasunean, beraz, duda barik proiektu honi ere etekinak aterako dizkiogu. Hasiera batean euskara bultzatzeko proiektu bat bada ere, gerora begira enpresa munduan harreman horiei jarraipena emateko aukerak sortuko dira ziur aski.




Oxirondo azoka erreferentziazko gune bihurtzeko biziberritze prozesua martxan dago



Herri mailako gune bat sortu nahi da Oxirondo azokan lehen sektorea eta bertako produktuen erreferentziazko gune bezala indartzeko. Asteaz zehar gainbeheran dagoen espazioari bizia eman nahi zaio, gaur egungo eskaintza osatu eta eskaintza iraunkorra sortuz. Proiektuak azokako eragileen, ekoizleen eta herritarren beharrak ase nahi ditu.



Se pretende crear un espacio local en el mercado de Oxirondo para potenciar el sector primario y como punto de referencia de sus productos. Se pretende dar vida al espacio que está en declive los días de labor, complementando la oferta actual y creando una oferta sostenible.



Harago ere badoa aipatu proiektua, izan ere, azokaren ideia berrasmatzea baitu helburu, azoka garaikidearen ideia gauzatuz. Nola? baserritarren produktuak lehen lerroan eskuragarri jarri, ordutegi malgua eskainiz, kalitatezko eta konfiantzazko elikagaiak eskuragarri jarri, sentsibilizazioa landuz, saski osoa leku berean egiteko aukera emanez, zero zabor filosofia txertatuz...

Salmenta leku hutsa izatek harago, topagune izateko helburua ere badu. Formazio eta sentsibilizaziorako espazioa izango luke, eta Oxirondo azokaren koordinazio orokorra ere gauzatuko litzateke bertatik; Udalarekin, herritarrekin, herriko gainontzeko eragileekin, landa garapenerako elkarrekin, herriko merkatariekin, baserritarrekin, etab.

Proiektua gauzatu ahal izateko, espazio fisikoa ere egokitu egingo da. Asmoa da eskuin aldean gune bakarra sortzea, eta ezkerreko aldean postu desberdinak egotea, orain arte bezala, baina gaur egun hutsik daudenak ere beteta.

TESTUINGURUA

Hilabetetako lanketa egin da dagoeneko, eta testuinguru orokorrago batean kokatuta dago proiektua. Izan ere, 2021. urtean, tokiko baserritarren azoken dinamizazioa eta sustapena helburu, Landaola elkarrekin, Eusko Jaurlaritzako Erika Fundazioaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta Gipuzkoako lurraldeko 16 udalerriren konpromisoarekin, 'Gipuzkoako azoken sarea' proiektua abiatu zuen.

Hor kokatzen da, halaber, Bergarako baserritarren azokaren inguruan 2021. urteko lehen seihilekoan egindako prozesua. Oxirondo azokari buruz hausnarketa konpartitua egin zen bertan aktiboki parte hartzen duten eragileen artean, elkarrekin, azokari balioa eman, eta etorkizunera begirako erronkak eta ekintzak identifikatzeko.

Hausnarketa-taldeko kideen parte hartzearen bidez Bergarako baserritarren azokako erronka nagusiak identifikatu, lehenetsi eta hauei aurre egiteko ekintza plana definitu zen.

Identifikatutako lehen erronka Bergarako baserritarren azokaren sustapenetik harago doan proposamena da, zehazki, Oxirondo azoka, bere osotasunean, biziberritzea. Epe ertainerako erronka honek, baina, beste hainbat erronka eta helbururi erantzun beharko die, hala nola: baserritarrak erdigunean jartzeari eta ikusgarritasuna irabazteari; baserritarren azokako baldintzak (sarbide irizpideak, kuotak, birsalmenta...) berrikusteari; edota Oxirondoko postu finko hutsak betetzeari.

Ekintza plan hau Udalak herritar eta eragileekin elkarlanean egindako *Bergara 2030 Egin Herrixa* plan estrategikoaren barruan kokatu zen, eta Elikadura Mahaiaren barruan sortutako azoka biziberritzeko lan-taldearen bitartez bideratzen ari da.

Azokaren eraikinean obra egiteko, eta lehen fase honetara, 2022. urteko aurrekontuetan Udalak 345.000€ dauzka izendatuta. Horrez gain, Next Generation direlako diru-laguntzak ere eskatu ditu Udalak, oraindik erantzunik jaso ez den arren.

Legealdiaren azken ikasturterako erronken artean Arrizuriaga, azoka eta Zabalotegiko jolas parkea berritzea

Gorka Artola Alberdi Alkateak 2022-2023 ikasturterako Udal Gobernuaren asmoen berri eman du urriaren hasieran. Testuinguru ekonomikoa eta soziala aztertuta, “berriro ere baldintza zailei aurre egin beharko diegula ematen du, hortaz, sor daitezkeen behar berriei adi egongo gara, beti ere *Bergara izan, bizi, ekin plana* iparrorratz. Pertsonak erdigunean, Bergara bizitzeko herri hobea izan dadin”, azaldu du.

Ikasturterako lanen artean laster gauzatuko diren dimentsio handiko bi lan daude: Zubieta eta Masterreka kaleen birgaitzea eta Agorrosingo futbol zelaia berritzea. Eta dimentsio txikiagokoak izanda ere, “ilusio berezia sortzen didatenak badaude, duten izaeragatik, esaterako, dependentsia apala duten adinekoentzat San Joxepen zabalduko dugun Arin zerbitzu berria”, esan du. Pertsona nagusien ongizateari lotuta, eta gizartean haien bizi esperientziak duen garrantziari jarraituta, Pertsona Nagusien Kontseilua sortzeko bidea ere zabalik dago.

Egingo diren beste proiektuen artean bi “bereziak” dira Artolaren ustez, Arrizuriagakoa eta azokakoa, “eraikinen obrak baino askoz gehiago direlako”. Arrizuriaga eraikina egonkortzeko lanak nahiko aurreratuta daude. Ondoren barruan garatuko den herrirako kultur proiektu berri eta berritzailearen lanketa ere abiatuta dago, kultur eragileekin elkarlanean. “Bergarako aberastasun kulturalari ekarpena egingo zaio proiektu horrekin, askotariko adierazpideei bidea zabalduz”.

Azokaren proiektua ere ildo beretik lantzen ari direla esan du Artolak, “espazioa berritzea eta berrantolatzea baino askoz ere gehiago izango baita”.

Beste lan batzuk ere egingo dira herritarrentzat garrantzitsuak izango direnak, esaterako, Boluko maldaren egonkortzerako lanen lehen fasea amaitzea. Auzoak biziberritzeko bidean, Osintxun hainbat interbentzio egingo ditu Udalak. Herri barruko bidegorri sarean hobekuntzak egingo dira, eta bizikleta eta autoentzat bide partekatuak prestatuko dira.

Aisiari lotuta Bergarako ume eta gazteei guneak eskaintzeko hainbat lan egingo dira, herritarren eskaerei erantzunda. Ur txorroten gunea sortuko da, parke estalia egingo da eta Zabalotegiko jolas parkea eraldatu eta berritzen hastekotan da. Hezkuntza Mahaian ere ekimen berriak planteatuko dira, ikasturte honetan segregazioaren gaia eta gaitasun handiko ikasleena landu ostean.

Gure gizarteak oro har aldatzen joan dira azken urteetan, eta gure gertukoei agur esateko espazio laiko baten falta askotan sumatu da Bergaran, eta eskaera horri erantzunez hileta zibilak egiteko gune bat sortuko da.

Elkarlan publiko-komunitarioaren bidetik ere hainbat proiektu eta lanek ikusi dute argia ikasturte hasiera honetan: *Ehundu* eraldaketa sozialerako bulegoak, Energia Berriztagarrien Komunitateak, edota pertsona ekintzaileek lanerako izango duten *Alkar Lankidetzeta Gunea*.

AZOKA



Para el último curso de la legislatura actual el Gobierno Municipal destaca, entre otros, el proyecto de Arrizuriaga, la revitalización del mercado y la renovación del parque de juegos de Zabalotegi.



Jasangarritasuna aurtengo ZTB jardunaldietako gai nagusietako bat

ZTB jardunaldien zortzigarren edizioa azaroaren 2tik 13ra egiten ari dira. Askotariko gaiak eta ekimenak landuko badira ere, ardatz nagusienetako bat jasangarritasuna da. Jardunaldien epeetan egindako jardueraz gain, urte osoan egin dira ekimenak, eta horietan ere leku nabarmena izaten ari da jasangarritasuna. Esaterako, Laboratorium Museoa azaroaren 3an inauguratutako 'Hondakin jasangarriak: Fikzioa edo errealitatea?' erakusketa. Edota urriaren 21ean ehungintza jasangarria ardatz hartuta egindako ekitaldia eta diseinuen erakustaldia.

Bergarako Udalarekin eta Laboratorium Museorekin batera jarduerak antolatzen dituzten eragileek urriaren 20an egindako 'Makinek euskaraz hitz egiten badakite? Eta Bergarakua ulertzen dabe?' hitzaldiaren sarrera baliatu zuten jardunaldien aurkezpena egiteko. Elhuyar Fundazioko Hizketa Teknologien arloko arduradun Igor Leturia Azkarate eta Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabal Arrieta aritu ziren hitzaldiari jarritako izenburuari erantzuna ematen. Eta bai, makinak ikasten ari dira euskaraz hitz egiten.

“Gure etorkizuna zientzia, teknologia eta berrikuntzari lotuta egongo denaren zalantzarik ez daukagu, eta horregatik, bultzada eta indartze berezia eman nahi diogu kultura zientifikoaren dibulgazioari, eta ildo horretan Laboratoriumek egiten duen lana indartu”. Hori da jarduerak urte osora zabaltzearen arrazoia, Gorka Artola Alberdi Alkateak azaldu zuenez.

Eskerrak emateko ere baliatu zuen hitzartzea Alkateak, “eragile eta norbanako askoren izugarritzko lana baitago atzean. Eta baita egiten den proposamenari erantzuten diozuen pertsona guztiei ere, izan ere, alferrikakoa litzateke proposamenak egitea eta harrerarik ez izatea. Eta oso harrera ona izaten dute jarduera hauek, bai norbanakoen aldetik, baita zientziari lotutako profesionalen artean, eta zer esanik ez, hezkuntzaren arloan”.

Asko eta askotariko jarduerak proposatzen dira, Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkin Arrazauk azaldu zuenez, “zientziaren eta berrikuntzaren bueltan beti, baina interes desberdinak dituzten pertsonentzat”. Egitaraua ikusgai dago ztbergara.eus webgunean, eta batzuk nabarmendu ditu. Horietako bat hezkuntza eskaintza, urtez urte gero eta arrakasta handiagoa baitu. Horren inguruan esan zuen, “aurtengorako eskaintza handia zelakoan geunden, baina gehiago zabaltzea aztertzen ari gara, jaso dugun eskaera handiari erantzuteko asmoz, uste baitugu gaztetatik kultura zientifikoa barneratzea ezinbestekoa dela”. Eta horregatik ikastetxeei eskerrak eman dizkie. Bi erakusketak ere aipatu ditu, baita Wolfram Encounterra, edota gazte ikertzaileen hitzaldi-sorta.

Hitzaldiak aurtan ere zuzenean emango dira online. Horiek jarraitzeko eta informazio gehiago jasotzeko ikus jardunaldien webgunea.



La octava edición de las jornadas sobre ciencia, tecnología e Innovación ZTB se celebran del 2 al 13 de diciembre, con la sostenibilidad como uno de los temas principales.



La segunda fase de la urbanización de la calle Zubieta a punto de finalizar



Zubieta eta Masterreka kaleak berritzeko lanak aurreikusita bezala gauzatzen ari dira. Zubieta kaleko bigarren fasea Gabonen aurretik amaitzea aurreikusi da. Masterrekakoa, aldiz, urtarrilaren 9an hasiko da, Gabonetako tartean lanak etenda. Informazioa emateko bilera irekia egingo du Udalak abenduan.

Las obras de revitalización de las calles Zubieta y Masterreka se están desarrollando según lo previsto. Divididas en tres fases -las dos primeras a ejecutar en Zubieta y la tercera en Masterreka- comenzaron el 17 de enero de 2022 y se prevé que tengan una duración total de 18 meses.

En este momento se está trabajando en la segunda fase de Zubieta, que se espera terminar antes de Navidad. Hay que realizar otros trabajos en las parte delanteras de los números 2 y 4 de esa misma calle, por lo que se llevarán a cabo al mismo tiempo. Estos últimos trabajos no tendrán afección en el tráfico rodado y finalizarán también antes de Navidad.

En esas mismas fechas se espera realizar los trabajos previos a la propia obra en la calle Masterreka. Pero, se ha decidido no comenzar con las propias obras de esta calle hasta el 9 de enero. Haciendo una pausa en los trabajos durante las semanas de Navidad, para que la ciudadanía no sufra las afecciones de la propia obra y de la modificación del tráfico rodado.

El Ayuntamiento prevé realizar una reunión informativa en diciembre, con el objetivo de explicar la afección que los trabajos tendrán en la población de la zona y en su movilidad, así como para dar respuesta a cuantas dudas o cuestiones se puedan suscitar.

Ander Zangitu,
Berener kooperatibako
kidea

berener
energia berriztagarrien komunitatea

**“Berener kooperatiba
herritarra bergararron
bizitzak hobetzeko
lanabesa izango da”**



Argazkia: The Badass Project

Energia Berriztagarrien Komunitatea, Berener kooperatiban gauzatu dena, aurkeztu dute urriaren 25ean. Ehunduren markoan egindako prozesua izan da, Goienerren eta Emunen eskutik urte hasieran abiatutakoa. Elkarlanean aritu dira herriko eragile, herritar, enpresa eta udal ordezkariak. Kooperatibari buruzko informazioa Ehunduk Mizpildi kaleko 2. zenbakian duen bulegoan eskura daiteke.

Zer da eta zertarako sortu da Berener?

Berener energia berriztagarrien ekoizpena, autokontsumo partekatua eta energia kontsumoaren aurrezpena sustatzen dituen kooperatiba herritarra da. Trantsizio energetikoa bultzatzea, herritarrek ahalduntzea eta pobrezia energetikoari aurre egitea jarri ditugu helburu gisa. Finean, bergararron bizitzak hobetzeko sortu da.

Nolako onurak ekarriko ditu?

Orotarikoak. Lehen ingurumenean, 100% berriztagarria den energia bultzatuko baita. Bestetik, ekonomikoak, gure etxeetako, komertzio edo enpresetako fakturak murriztuko baitira. Inkusiboa ere

izango da, baliabide energetikoak denon eskura edukiko ditugulako. Tokiko ekonomia sustatuko du eta etorkizunean lanpostu berriak sortzea ere espero da.

Zer berezitasun izango ditu kooperatiba herritar honek?

Irabazi asmorik gabekoa da. Erabiltzaile kooperatiba denez, horiek izango dute erabaki ahalmena. Hala ere, erabiltzaileez gain, lan bazkideak eta bazkide laguntzaileak ere egongo dira. Bazkide laguntzaile izateko prest azaldu dira Udala, Alet eta Fagor Taldea.

Nola egin kooperatibako kide?

Herritarrek 100 euroko gutxieneko ekarpena (bakarra, ez urtero) egin

beharko diote kooperatibari. Erabiltzaile juridikoek (denda, elkarte...) 200 eurokoa.

Gutxieneko kide kopuru bat beharrezkoa da?

Jendea behar da, kooperatiba bideragarria izateko eta proiektuak aurrera atera ahal izateko. Proiektuak aurrera joan ahala, kooperatibako erabiltzaileek aukera izango dute proiektu zehatz horietara batzeko eta horien instalazioan parte hartu eta onuradun izateko (onuradun izateko kostuetan ere parte hartu beharko dute, hau da, kooperatibako kide izanda bakarrik ez da proiektu baten onuradun izango).

Zeintzuk dira hurrengo urratsak?

Lan saioekin eta aurkezpenekin jarraitzeaz gain, lehen proiektua abiatuko dugu. Asmoa da San Martin eskolako teilatuan eguzki plakak jartzea. Eskolaren autokontsumorako izateaz gain, Udalak familia zaurgarriei eskainiko die, eta ehun familia baino gehiagoren kontsumoaren portzentaje bat aseko du.



Sarea ehuntzen joateko espazioa izango da Ehunduren bulegoa



Ateak zabaltu berri ditu Mizpildi kalean kokatuta dagoen Ehundu eraldaketa sozialerako proiektuaren bulegoak. Urriaren 27an egin zen inaugurazioan, “lankidetzaz marko berri baten adierazle” dela aipatu zuen Gorka Artola Alkateak.

Herritarren beharrak identifikatu, eta elkarlan publiko-komunitarioan oinarrituta horiei erantzutea helburu duen lanabesa da, batetik, eta, herritar eta eragileen arteko saretzerako espazioa, bestetik.

Zer eskainiko da bulegoan?

- Energia gaitan aholkularitza.
- Ekintzailatza soziala. Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako proiektuak bideratzeko eta sustatzeko espazioa izango da.
- Formazioa eta hitzaldi zikloak.
- Informazio gunea. Lan-ildoen informazioa eta proiektuen saretzea sustatuz (Kukubaso, Ereindajan...).

Herritarrek egindako eskaerari erantzunez sortu zuten proiektua Bergarako Udalak, Olatukoop-ek, MU-Lankik eta Debagoiena 2030ek, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ere jaso du.

Bulegoa Mizpildi kaleko 2. Zenbakian kokatuta dago. Herritarrei arreta astelehen eta asteazkenetan, 15:30etik 19:30era egingo zaie. Hitzordua hartzeko eta informazio gehiagorako ehundu@ehundu.eus helbidera idatz daiteke.

La oficina para la transformación social Ehundu ya ha comenzado su andadura. Sita en la calle Mizpildi 2, ofrecerá entre otras cosas, asesoría en temas energéticos, formación, etc.

Ortu komunitarioetan landatzen hasteko gertu daude erabiltzaileak



Urriaren 22an eta 29an baratzegintza ekologikoari buruzko ikastaroa egin ondoren, lanean jarduteko gertu daude San Joxepeko ortu komunitarioetako erabiltzaileak, ezinbesteko baldintza baita esleipendunek ikastaroa egitea horiek erabiltzen hasteko. Aurrera begira ere, izango dute formazioa jasotzeko aukera erabiltzaileek, Furgobaratza zerbitzu ibiltariaren bidez.

Urriaren 5ean egindako zozketan 75 lursail banatu dira, eta beste 21 daude erabilgarri. Ortuen esleipena bideratuta, epez kanpo jaso diren eskaerak tramitatzen hasiko da Udala, jaso diren hurrenkeran. Urriaren 5ean egindako zozketan beste 21 lursail horiek banatzeko hurrenkera ere erabaki da.

Deialdia lau urtez behin egingo den arren, herritarrek beti izango dute ortu publiko bat eskatzeko aukera eta eskubidea; eskaera egiten dutenerako 96 ortuak esleituta badaude, eskatzailea (deialdiko baldintzak betetzen baditu beti ere) itxaro-zerrendan geratuko da, eskaerak egiten diren hurrenkeran. Eskaerak BAZean edo webgunean horretarako jarritako formularioa beteta egin behar dira. Lursailen bat libre geratzen bada, itxaro-zerrendan lehena dagoenari esleituko zaio.





Las huertas comunitarias ya están preparadas para comenzar a trabajar en ellas. Las personas adjudicatarias ya han recibido la formación necesaria para poder comenzar a utilizar sus parcelas.



Informazioa eta
eskaerak egiteko
izapideak

BERGARA HOBETZEN





2022ko lanak


(orain arte eginda edo egiten)

Aurreikusitakoak

legegintzaldi barruan

Irudian jasota dauden lanetarako 5 miloi euro inguruko inbertsioa egin du Udalak, Bergara hobetzeko helburuarekin.

El Ayuntamiento ha invertido cerca de 5 millones de euros para realizar los trabajos de la imagen, con el objetivo de mejorar Bergara.



El 10 de noviembre abre las puertas el centro de día 'Arin' para personas mayores que necesiten ayuda de baja intensidad

Una vez reunido el número mínimo de personas usuarias para poner el servicio en marcha, como se recoge en las bases, el 10 de noviembre comienza su andadura el centro de atención de día 'Arin'.

Se trata de un equipamiento para personas mayores de 65 años en riesgo de dependencia o dependencia ligera, donde acudir durante el día, en el que se ofrecerá un apoyo de baja intensidad ligado a las necesidades específicas de atención.

Los objetivos son, por un lado, contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas usuarias. Por otro lado, ayudarles a relacionarse con otras personas, especialmente a las que viven solas o bien con familiares que trabajan. Y mejorar la calidad de vida estas personas, con actuaciones preventivas, y actividades recreativas, y una atención personalizada.

Ofrece servicios de información de seguimiento y valoración de las personas usuarias. Intervención estimulativa o rehabilitadora. Actividades de ocio, educativas y culturales. Soporte emocional y orientación en situaciones de crisis. Acompañamiento dirigido a la adquisición de habilidades para mantener o establecer relaciones sociales y/o personales, y generar oportunidades para el establecimiento de relaciones.

No se ofrece servicio de transporte. Sin embargo, el servicio 'Herribusa' dispone de una parada junto al centro 'Arin' por lo que se puede utilizar el mismo para acceder al servicio.


En un primer momento se prevé abrir el servicio en las instalaciones del Centro Social de Boni Laskurain, 9, de lunes a viernes, de 10:00 a 13:00 horas. No obstante, teniendo en cuenta la composición de los grupos, se podrán analizar otras opciones de emplazamiento y horarios, para responder mejor a las necesidades.

Para utilizar el servicio es imprescindible el empadronamiento en Bergara, tener más de 65 años y estar en riesgo o situación de dependencia (grado 1 que hayan obtenido una puntuación en la valoración de la dependencia de entre 25 y 39 puntos).

La aportación económica estará definida por la situación económica de cada persona usuaria, siendo la aportación mínima de 5 € al mes y la máxima de 60 € mes.

Más información en el servicio de atención ciudadana BAZ. En el Ayuntamiento, en el teléfono 943 77 91 00 o escribiendo a baz@bergara.eus.

Azaroaren 10ean zabalduko da intentsitate txikiko laguntza behar duten pertsona nagusientzat 'Arin' eguneko arretazentroa. 65 urtetik gorako eta mendekotasun arrisku edo mendekotasun arin egoeran dauden pertsonen egunean zehar erabiltzeko ekipamendua da.





Argazkian daude:
San Martin eskolako
Jose Mari Bernedo,
Aranzadi ikastolako
Imanol Garitano,
Mariaren Lagundia
ikastolako Amaia
Fernandez eta Maite
Iñarra eta
Hezkuntzako
zinegotzi Ekaitz
Aranberri.
Argazkian ez dago,
baina taldean parte
hartzen du Ipintza
instititutuko Nuria
Fernandezek ere.

Gaitasun handiak dituzten haurrei arreta egokia emateko lanketa abiatu du Hezkuntza Mahaia

Gai baten inguruko ez-ezagutzak, ideia faltsuak... maiz garamatza gai horrek eragiten dien pertsonen beharrezko arreta, laguntza, erantzuna ez ematera, eta ondorioz, nahi gabe sufrimendua eragitera. Adimen gaitasun handiak dituzten haurren kasuan hori gertatzen dela ikusita, gaiari heltzea erabaki da Bergaran.

Bergarako Hezkuntza Mahaia egiten ari den lanaren barruan kokatzen da ekimena. Mahai horren barruan bi talde sortu dira, gai banaren inguruan. Bata segregazioaren gaiaren inguruko lanketa egiteko Bergaran eta bestea gaitasun handien inguruko lanketa egiteko.

Gaitasun handien inguruko lan taldean bi modutan jorratu da gaia. Batetik, irakaskuntzako profesionalekin. Bergarako Aranzadi, Ipintza, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeko irakasleak eta hezkuntza formaleko profesionalak parte hartzen ari dira. Urrian hasi eta azaroaren erdialdera bitarte, herriko ikastetxe guztiei zuzendutako formakuntza egiten ari dira herriko irakasleak gaitasun handien inguruan. Espezifikoak, adin tarte bakoitzari egokitutakoa eta aberastasun curricularra begira dagoena.

Bestetik, gurasoekin. Herriko guraso batzuk elkartu dira adimen gaitasun handien inguruko lanketa egiteko. Haien asmoa herri mailan kolektibo hau ikusaraztea da, baita,

guraso moduan formakuntza jasotzea, familien arteko topagune izan eta seme-alabentzat ekintzak antolatzea. Irailaren 22an, esaterako, Bergarako Adimen Gaitasun Handien Guraso Taldeak sustatuta hitzaldia antolatu zuen Bergarako Udalak.

'Adimen gaitasun handiko haurrak ezagutzen' hitzaldia egin zuen Amaia Agiriano gaian aditua den psikologoak Seminarixoan. Hitzaldia Seminarixoaren Youtube kanalean dago ikusgai.



La Mesa de Educación de Bergara está trabajando en el tema del alumnado con altas capacidades intelectuales, a través de formaciones específicas para el profesorado y con sesiones informativas dirigidas a familias.



Arrizuriagaren etorkizuna eraikitzen partaidetza prozesua gauzatzen ari da

Uztailaren 12an Arrizuriaga jauregiaren inguruko prozesua aurkeztu zitzairen aurkezpenera joan ziren eragile eta herritarrei, eta eraikina bisitatzeko aukera ere izan zuten. Partaidetza prozesua bera irailaren 28an egindako bileran abiatu zen. Bileran horretan erabileraren eta ekipamenduaren inguruan hitz egin zen, eta hurrengo saioan espazioaren kudeaketa-ereduari buruz hitz egingo da. Azaroan egingo

den hurrengo saioan jarraituko da lanketarekin. Arrizuriaga kultur ekipamendu bat izango da, herritar guztiei irekia eta kultur adierazpen mota guztientzako lekua izango duena: hitza, irudia, gorputza, soinua... eta horrekin batera, aurreikusi da Bergarako emakumeen txokoa ere bertan kokatzea. Bestetik, eraikina birgaitzeko obra aurreikusi bezala ari da gauzatzen.

Gainera, 43.000 euroko esleipen gehigarria egin da, eraikinaren ipar, eki eta hegoaldeko bigarren eta goiko oinetako fatxadak berritu eta harriak garbitzeko. Eta horrela, duen ondare balioa mantendu. Hasiera batean ez zegoen aurreikusita lan horiek fase honetan egitea, baina beste lanak egiteko aldamioak jarrita daudela baliatuta egingo da orain lan hori. [1]



Ekintzailetasuna bizirik dago bailarako gazteen artean

'Ekinola Etorkizuna zure eskuetan' jardunaldia egin da bigarren urtez, irailaren 28an, Miguel Altuna Lanbide Heziketa zentroan. Ideia berri eta berritzaileak dituzten eta ekintzaileak diren gazteei zuzendutako jardunaldia da. Bailarako 34 gaztek parte hartu dute aurtengo edizioan, ekintzailetasunarako grina bizirik dagoenaren seinale. Ekintzailetasunean eredu izan den Miguel Lazpiurri omenaldia ere egin zitzaion. Bergarako alkate Gorka Artolak eta Miguel Altunako zuzendari Joxu Aranak, biek ala biek, nabarmendu zuten Lazpiurren ekintzailetasuna, ez bakarrik lan munduan. Pozik eta umil hartu zuen errekonozimendua Lazpiurrek. Jardunaldiok Miguel Altuna Lanbide Heziketak, Bergarako Udalak eta Enpresarek antolatzen dituzte elkarlanean, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Tknikaren laguntzarekin. Tazebaez aholkularitza taldeak dinamizatzen ditu. [2]

Ikasturte honetan 61 haur ari dira eskolaz kanpoko euskara errefortzuak jasotzen

Ingurune euskalduna ez duten Lehen Hezkuntza 1. eta 6. maila arteko haurrei zuzendutako jarduera honen helburua euskaraz aritzea da, talde txikitik eta metodologia egokia erabiliz. Haurrekin jolasak, eskulanak eta beste hainbat dinamika egiten dira, haurrak hitz egitera bideratzeko, esperientzia politen bizipena jaso eta euskara modu erosoago batean ikasteko. Jardun Euskara Elkartek Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin eta elkarlanean gauzatzen du, Aranzadi Ikastolan, Mariaren Lagundian eta San Martin ikastetxean. [3]

[1] El proceso participativo para definir el futuro de Arrizuriaga ya está en marcha. [2] Las jornadas Ekinola reflejan que el espíritu de emprendimiento entre la juventud de la comarca sigue latente. [3] 61 niñas y niños reciben este curso clases de refuerzo de euskera de forma extraescolar.

Estatu espainiarreko atzeritartasun legearen aldaketak izango duen eragina aztergai



Pasa den uztailaren 26an Estatu espainiarreko Ministro-Kontseiluak atzeritartasunaren inguruko legediaren aldaketa onartu zuen. Aldaketak hainbat eta hainbat prozedurari eragiten die: baimenak lortzeko, mantentzeko eta berritzeko baldintzak, orokorrean, malgutu egin dira. Egoera administratiboa erregularizatzeko figura berri bat ere sortu da, eta pertsona askoren erregularizazioa eragotzen zuten hainbat baldintza kendu dira. Jabekuntza Eskolaren barruan, azaroaren 23an egingo den atzeritartasunaren inguruko saioan, aipatutako aldaketak aztertuko dira: eskaintzen dituen aukerak, eta baita oraindik ere kontutan izan beharko diren erronka eta zailtasunak.

2022ko urritik 2023ko urtarrila bitarteko Jabekuntza Eskolarako osatutako eskaintzan 7 aukeretako bat da aipatu jarduerak.

Egitaraua udalaren webgunean dago ikusgai. Edozein jardueran parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea.[1]

Osintxu biziberritzeko lan-taldea lanean ari da

Txuringo Kultur Elkartek, Soralue Kooperatibak eta Bergarako Udalak osatzen duten lan-taldea Osintxu biziberritzeko lanean ari da. Bere helburu nagusia da Osintxuren alde lan egitea hirigintza arloan, kulturen eta gizarte arloan.

Aipatzekoa da Soralue kooperatiba egiten ari den inbertsioa, bai ekonomikoa zein auzoarekiko konpromiso erreala agertzen.

Helburuari jarraituta, hainbat arlotan egiten ari dira lanketa eta interbentzioak une honetan. Batetik, etxebizitza pribatuen birgaitzeari garrantzia ematen zaio. Etxebizitzak birgaitzeko eta energetikoki efizienteagoak izateko dauden aukera teknikoak eta diru-laguntzak azaltzeko irailaren 28an aurkezpen bat egin zuen Suradesak Osintxuko liburutegian. Aurkezpen horretako edukia herritar guztien eskura dago Osintxuko liburutegian bertan. Ildo horretan urratsak emateko, hainbat garaje eskuratu ditu Udalak, eta ingurune horren txukuntzea izango da laster egingo den esku-hartzea.

Bestetik, Osintxuko eskolaren biziraupena ere ezinbestekoa da auzoak bizirik jarraitu nahi badu. Gaur egun, haurrek Txuringon bazkaltzen dute Soralueko langileekin batera, zaintza zerbitzua martxan jarri da, eta horretarako diru-laguntza lerroa zabalik dago.

Kooperatiba energetikoaren gaia ere bideratzen ari da auzotar talde bat, zaurgarritasun egoeran dauden familien hornikuntza energetikoa ere kontuan hartu nahi baita auzoan, ildo horretan ere aurrera pausuak ematen ari dira. [2]

Biodibertsitatea hobetzeko eta bertako basoa sustatzeko hainbat baso-lur erosi ditu Udalak

Inguru naturalak berotegi efektuko gasak xurgatzeko, eta hartara, aldaketa klimatikoa gutxitzeko duen garrantziaz jabetuta, Udalak lehen aldiz baso-lurrak erosteko deialdi publikoa egin du. Helburua da erosten diren lursailak biodibertsitatea hobetu eta bertako basoa sustatzera bideratzea, pixkanaka udalerrian baso-landaketek duten hedadura gutxitzeko.

Herri-lurren funtzio hori aintzat hartuta, lurzoru ez urbanizagarriko lursailen erosketa publikoa funtsezko tresna da aipatu helburu horiek lortzeko bidean. Eta hortaz, udalbatzak, uztailaren 18ko osoko bilkuran 10 partzela erostea erabaki zuen, eta irailaren 26ko bilkuran beste bat. Uztaileko batzarrean Gobernuako bozeramale Nagore Iñurrategik azaldu zuenez, "Udalak lurak jabetzan hartuta, bermatzen du interes pertsonalen gainetik interes orokorrak jartzea. Horietan landatu daitekeena zain dezake eta eremua babestu".[3]



Boluko malda egonkortzeko lanak aurreikusi bezala gauzatzen ari dira

Boluko malda egonkortzeko lanen bigarren fasean lanean ari dira abuztuaz geroztik. Argazkian ikusten denez pantaila eginda dago, eta egunotan hasiko dira maila jartzen. Halaber, bidegorriko plataformaren drainatze-sistema hobetzeko lanak egiten ari dira, eta baita murrua ere. Ondoren pasako dira goiko aldean hesi dinamikoa egitera.

Ondo bidean obra urtea amaitzearekin batera, edo datorren urte hasieran bukatuko da. Hala ere, hemendik aurrera egin behar diren lanetan eragin zuzena du eguraldiak, eta hortaz, horren eta horniduren menpe dago aurreikusitako epeak bete ahal izatea. [4]

[1] Los efectos de la modificación de la Ley de Extranjería a estudio en la Escuela de Empoderamiento.

[2] El grupo formado por Txuringo Kultur Elkartea, la cooperativa Soralue y el Ayuntamiento está trabajando en la revitalización de Osintxu.

[3] El Ayuntamiento está adquiriendo terrenos forestales con el objetivo de mejorar la biodiversidad.

[4] La segunda fase de las obras de estabilización de la ladera de Bolu se desarrollan según lo previsto. Se prevé que finalicen a finales de este año o principios del siguiente.



Alkar Lankidetza Gunea erabilgarri dago Debagoieneko ekintzaileentzat

Haien kabuz lanean ari diren pertsona ekintzaileek lanerako espazio berria dute urritik aurrera, UNEDen egoitzan kokatuta dagoen Alkar Lankidetza

Gunean. Espazioa erabiltzeko eskaera Bergaran edo Debagoienean errolatutako ekintzaileek egin dezakete, BAZean. Horretarako inprimakia beteta, NANA eta negozio ekimenaren bideragarritasun plana egin badute, planaren kopia, eta Debagoieneko Garapen Agentziako aldeko ebaluazioa. Alkar Lankidetza Gunearen erabilera epe baterako izango da. UNED zabalik dagoen ordutegi bera du, eta indarrean dauden prezio publikoak ordaindu beharko dituzte onuradunek. Bergarako Udalaren Garapen Zerbitzuaren bitartez kudeatzen da. [1]

Monzon-Ganuzar sarirako artista berriei deialdia

Monzon-Ganuzar Euskal Utopikoei Saria sinbolikoa izan ohi da: obra artistiko bat, edozein dela ere eremu edo esparru artistiko (eskultura, margoa, argazkia, ikus entzunekoa...). Saridunari bere ibilbidea aitortzen zaio. Saria euskal artista berriak sustatzeko ere erabiltzen da, eta modu horretan belaunaldien arteko zubi lana eraiki nahi da. 3.500 euroekin ordainduko zaio aukeratutako egileari saria izateko erosiko zaion bere artelana. Ibilbide artistikoa eta obra bildumaren dosierra bidali behar da parte hartzeko, abenduaren 31 baino lehen, fundazioa@olasodorrea.eus helbidera. [2]

Bergararrok ere hitzez ekiteko gertu



Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo da Euskaraldiaren hirugarren edizioa, 'Hitzez ekiteko garaia' lelopean. Entitateek eman dute izena 'Arigune' izateko, tartean Bergarako Udalak, uztaileko osoko bilkuran onartu ostean. Norbanakoentzat izen-ematea zabalik dago, 'Ahobizi' edo 'Belarripres' izateko, azaroaren 17ra arte. Bi modu daude; batetik online eta bestetik Euskaraldiaren lokalean (Barrenkalea, 35) edo mahaietan. Bulegoa 10:00etatik

12:00etara eta 17:30etik 19:30era dago zabalik. Mahaia ostegun arratsalde eta larunbat goizetan jartzen dira, Irala kalean eta azokan. [3]

Danbaka Musika Lehiaketaren 5. edizioa Bergaran egiten ari da

Urriaren 14an hasi zen Bergarako Seminarixoa aretoan Danbaka Musika Lehiaketa. Goiena Komunikazio Taldeak antolatu du Bergarako Udalaren laguntzarekin. Finala urtarrilaren 13an jokatu da, epaimahaiak aukeratutako hiru talde onenen artean. Hogeitaz taldek hartuko dute parte. Abenduaren 16ra bitartean, bost kontzertu antolatu dira eta bakoitzean lau taldek joko dute. 12 urteren ostean, bueltan dator Danbaka; oraingoa bosgarren aldia izango da. Informazioa <https://danbaka.eus> webgunean irakur daiteke. [4]

Valogreene Paper BC, S.L enpresari Ingurumen baimena emateagatik errekurtsua jarri du Udalak

Ekainean bide administratiboa amaituta, eta udal planeamenduaren defentsan eman beharreko hurrengo pausoak aztertuta, epaitegian errekurtsua jartzea erabaki du Bergarako Udalak. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022ko ekainaren 13an argitaratu zuen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian VALOGREENE PAPER BC, S.L enpresari Ingurumen Baimen Bateratua eman ziola. Horren aurrean, eta kontuan hartuta, batetik, Bergarako udalbatzak aho batez onartutako Plan Orokorren kontra egiten zuela, eta bestetik, ez zuela aintzat hartzen Bergarako hiri ordenamenduak dioenari jarraituz emandako kontrako hirigintza bateragarritasun txostena ere, gorako errekurtsua jarri zuen Udalak. Ingurumen Sailak Udalaren eskumeneko adierazpenei muzin eginez ez zuen onartu. Hori horrela, eta beti ere udal planeamenduaren defentsan, beste bide hau zabaltzea erabaki du Udalak. [5]

[1] El espacio de trabajo compartido Alkar Lankidetza Gunea ya está disponible para las personas emprendedoras de la comarca.

[2] Abierto el plazo hasta el 31 de diciembre para elegir la obra artística para el Premio Monzon-Ganuzar 2023.

[3] Bergara está preparada para la tercera edición de Euskaraldia que se desarrollará entre el 18 de noviembre y el 2 de diciembre.

[4] La quinta edición del concurso Danbaka Musika Lehiaketa dirigido a artistas de la comarca se está llevando a cabo en Bergara.

[5] Finalizada la vía administrativa el Ayuntamiento ha interpuesto un recurso ante el juzgado en el caso de la empresa Valogreene Paper BC, S.L., por la Autorización Ambiental Integrada que le otorgó el Gobierno Vasco, en defensa del planeamiento municipal.

Bergarako ehungintzak leku propioa izango du Laboratorium museoan



Laboratorium museoak ondarea bildu, zaindu, ikertu eta ezagutzera ematen du, gizartearen gozamenerako. Baina ez horretarako bakarrik. Garapen eragile izatea du helburu, jasangarritasuna eta berrikuntza oinarri izanik, eta gizarteari ekarpena egitea ere, hortaz, badagokio.

Museoaren helburu nagusi hau kontuan izanda, aurtengo bere egitasmo nagusia ehungintza eta jasangarritasuna uztartuko dituen hainbat jarduera antolatzea izan da, urtearen azken hilabeteetan ikusgai egon edo gauzatuko direnak. Hauek guztiak, beti bezala, eragile desberdinekin elkarlanean antolatu dira, hori baita *Laboratorium*en funtzionatzeko ohiko modua.




BERGARAKO EHUNGINTZAREN BIZI ISTORIOAK

Dakigun moduan, ehungintzari esker hirugarren sektoreko enplegu asko sortu ziren Bergaran; hala nola, oihaldendak, tindategiak, joskintzalantegiak, etab. Eta horrela bihurtu zen Bergara ehungintzaren herri erreferente. Bergaran oraindik oso presente dago industria horren eragina.


*Laboratorium*ek Bergarako ehungintzari buruzko proiektu bat martxan jarri zuen urte hasieran, eta helburua da Bergarako ehungintzan lan egin zuten pertsonen testigantzen bitartez ehunak Bergaran izan duen garrantzia berreskuratzea, industria honen sentimenduak eta bizipenak biltzea, gordetzea eta berpiztea.

Horretarako, ehungintzan lan egin zuten pertsonak *Laboratorium*en bilduko ditugu, eta bertan, kafe eta gozoen artean, ehungintzari buruz hitz egingo dugu. Elkarriketa hauek guztiak irudiz eta audioz dokumentatuko dira. Lan dinamika honi edo ehungintzan lan egin zuten pertsonekin biltzeko modu honi 'Kotoizko kafeak' deitu diogu. Honela, Bergarako herritarrek ehungintzari buruzko txoko bat izango dute *Laboratorium*en. 'Kotoizko kafeak' ibiltariak ere izango dira, izan ere, azaroaren 16an, 18:00etan, San Joxepe jubilatuen etxean bilduko baikara.



EHUNGINTZA JASANGARRIAREN ADIBIDE BATEN AURKEZPEN-EKITALDIA

Ehungintzarekin jarraituz, *Laboratorium* museoan jasangarritasun adibidearen aurkezpen-ekitaldi bat egin genuen urrian. Lehenik, jasangarritasun eta birziklatze arloekin lotutako aurkezpen bat egin zen *Laboratorium*en, Bergarako Udalaren eta Evlox eta Kotoi enpresen eskutik. Partaide bakoitzak jasangarritasuna bere egunerokoan nola lantzen duen azaldu zuen. Moda desfile batek jarraitu zion ondoren, ehun jasangarri horiek ikusteko aukera emanaz.



Lore Jokoak Bergaran egin zirenekoa

Euskal Herriko hainbat txokotan ohikoa da uda sasoiaren amaieran Euskal jaiak egitea. XIX. mende erdialdean hasi eta XX. mende hasiera arte euskararen eta euskal kulturaren alde antolatutako Lore Jokoen ondorengo direla esan dezakegu. "Euskal Pizkundera"ren lekuko dira, eta gure herrian ere egin ziren.

Lore Jokoak Bergaran 1905eko urriaren 5etik 9ra egin ziren; hasiera batean irailean egiteko asmoa bazuten ere, hauteskundeak zirela eta, atzeratu egin ziren.

Lore Jokoak XIX. mende erdialdean hasi ziren euskarari eusteko asmoarekin eta gure kulturaren garapenerako, Anton Abadia euskaltzaleak bultzatuta; horretarako euskaraz sortutako poesia, pintura eta musika lehiaketak antolatzen zituzten. Urruñan eta Saran lehen edizioak egin ostean Hegoaldean ere antolatzen hasi ziren. Gure herrikoa 'Consistorio de juegos florales de San Sebastian' erakundeak antolatutako 24. edizioa izan zen.

Horren bueltan Gipuzkoako Foru Aldundiak nekazaritza eta abeltzaintza lehiaketak eta nekazaritza erakusketa ere antolatu zituen. Euskalherriaren Adiskideen Elkartek berriz, nekazaritza kongresua antolatu zuen. Udalak ere batzorde bat eratu zuen eginbeharrekoak kudeatzeko.


Udal espedientea kontsultatuta, (BUA 01,C/0107-002), egia esateko, gauza batzuk ikasteko aukera ematen du. Udalak eskolako jaia prestatu, eta eskola guztietako umeen zerrenda bildu zuen; 1.000 umetik gora goiko plazatik San Martin plazara joan ziren San Martinen ereserki berria kantatuz. Garaizabalek sortutako ereserkiari buruz hitz egiten ari dira; gaur egun kantatzen dena, hain zuzen ere, "Goratu zagun, goratu Martin Santua..."

Antzerkia euskaraz ere egon zen. Donostiako Euskaldun fedea taldeak antzeztuta. Urriaren 6an, 21:00etan, 'Urrutiko inchaurreak', 'Mariya' eta 'Alkate berriya'. Eta larunbatean berriz, ordu berean, 'Bishente', 'Praishku' eta 'Abel istillubak' antzeztu ziren.

'Chanton Piperri' operaren bi emanaldi egon ziren; bata igandean, 21:00etan eta hurrengo astelehenean. Musika Buenaventura Zapirainena da eta testua Toribio Alzagarena.

Aipatzekoa da operaren aktoreen zerrendan Felipe Arando bergarra azaltzen dela. Baritono-baxua zen. Eta Berasateguioren papera egin zuen. Felipe Arando Bilboko Euskeria orfeoaren sortzaileetako bat izan zen bakarlaria.

Antzerki eta opera emanaldiak azokarako egindako eraikin berrian izan ziren, San Martin Agirre plazan (Artekale 1).




Udalak jarritako pertsonak:

- Txartel-leihatilan: Luis Berroya eta Felix Elorza.
- Atezain lanetan: Domingo Bilbao, Isidoro Bilbao, Jose Uribesalgo eta Jose Maria Ugarte.
- Aretoa zaintzen: Longinos Lamariano, Rufino Uranga, Gabriel Fernandez eta Jose Egizabal.

Hona hemen sarreren prezioak:

Lekuaren arabera	Funtzio lirikoak	Funtzio dramatikoak
Erdiko eserlekuak	5	2,50
Alboko eserlekuak	3,50	2
Anfiteatroa	3,50	1,50
Galeria eserlekuak	1,50	0,75
"paseo"	1	0,50



Ikastetxeetan aurreztu, kontzientziak pizteko

Debagoiena 2030 ekimenak eta eskualdeko udalek bultzatuta, Ikastetxe-klik ekimena martxan da Debagoieneko hamaika ikastetxetan. Energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da eta ikasturte osoa iraungo du egitasmoak. Bertan parte hartuko dute Bergarako San Martin Ikastetxeak eta Mariaren Lagundia Ikastolak.

Helburua izango da ikastetxe (eraikin) horien energia eta ur kontsumoak murriztea, horretarako diseinatuko den prozesu baten bitartez. Gidaritza teknikoak ekoON enpresak egingo du eta dagoeneko egin dute eraikin bakoitzaren diagnostia: “Azken hiru urtetako fakturak hartuta kontsumoaren batz besteko bat egin dugu eta hori abiapuntu hartuta, murrizketari begira neurri eraginkorrak proposatuko ditugu”, azaldu du ekoONeko Monika Monteagudok.

ESKOLA KOMUNITATE OSOAREN INPLIKAZIOAREKIN

Eskoletan energia taldeak sortu dira eta horietan familiak, langileak eta ikasleak daude ordezkaturak. Hilabeteen behin egingo duten jarraipen bileran planteatuko dituzte murrizketari begirako neurri berriak. Oraingo ikasturtean, batez ere ohitura aldaketak, programazio egokiak... landuko dituzte. Esaterako, ikasgela bakoitzean arduradun energetiko bat izendatu da eta bere ardura da gelatik irtetean argiak itzaltzea, berogailua piztuta dagoenean leihoak itxita daudela ziurtatzea...

Kontzientziaziorako sekulako lanketa izateaz gain, ikasturte bukaerarako aurrezpenak izango dituzte ikastetxeek. Gainera, aurreztutako %50a bueltatuko zaio eskolari eta energia taldeko kideek erabakiko dute non inbertitu hori. Gainerako %50a inbertituko da efizientzia neurrietan.



**JOSERRA LASA -
SAN MARTIN IKASTETXEA**

Energiaren kontsumoaren kudeaketa oso garrantzitsua dela uste dugu eta urtero lantzen dugu gaia maila desberdinetan egiten diren proiektuetan. Hori horrela, erabaki genuen proiektuan parte hartzea. Proiektu honekin gure ikasleengan beste ikuspuntu ezberdin bat sustatuko dugula ikusten dugu eta beraien interesa ere kontuan izan beharko dugula. Eskolan energia ekimen ezberdinak martxan jarriko dira eta lantalde bat sortuko da. Gure proiektua 5. mailako ikasleekin egingo dugu baina gero ikastetxe osora zabalduko da eta lanketa orokor bat egingo da.



**AITZOL MUJIKA -
MARIAREN LAGUNDIA**

Bailara mailan eta udaletxearekin lankidetzan etorri zaigun proiektu bat izanik, gure inguruarekin dugun konpromezua bete nahi dugulako hartu dugu parte. Izan ere, gure ikasle eta familiak hemen bizi dira, eta oso egokia iruditu zaigu mundu mailan dagoen arazo bati gure herrian bertan konponbidea ematen hastea. Proiektu handiak, bakoitzak bere ingurua lantzen hasita gauzatzen dira, txikitik handira joanez. Gaur egun energiaren gaia bolo-bolo dabil eta momentu ona iruditu zaigu Ikastolako komunitate guztia lanean jartzeko.

ehbildu

HERRITIK HERRIRA

Bizitzaren garestitzea denok nabaritu dugu gure poltsikoetan dagoeneko. Lehenagotik ere aberatsa zen gutxiengoak aberastasun handiagoa pilatu du egoera horretan, baina gehiengoak pobretzen ari dela begi bistakoa da. Batzuek sinestarazi nahi digute naturala dela fenomeno hori, bizitzaren zikloaren parekoa. Erabaki politiko zehatzen ondorio da, ordea.

Erabaki politikoa da europarrak eta baita ukrainarrak ere kaltetzen dituen gerra bat luzatzeko neurriak hartzea (zeinen interesen mesedetan?), fracking-aren bidez lortutako gasa AEBei errearen prezioan erostea bezalaxe. Etxera etorrita ere, erabaki politikoa da AHTa egitera 2023an 385,6 milioi euro bideratzea, eta ez Osakidetza. Zergatik tematzen dira hainbeste milioi euro xahutu ondoren ere loturarik aurreikusten ez zaion tren batekin? Zergatik, merkantziak ezingo dituela garraiatu onartuta ere? Erabaki politikoa da horrelako txikizioa egitea (angiozartarrei galdetu, edo pasa bertatik), duela hamarkadak proiektua justifikatzeko erabili zituzten argudioak gaur egun baliorik ez duten arren.

Eta euren jardunarekin guztiz koherentea den erabaki politikoa da, gainera. Koherentea da diru publikoa poltsiko pribatuetara bideratzen duelako. Koherentea da fiskalitate justu bat ez onartzearekin, eta koherentea da Osakidetza desmantelatzearekin.

Duela urteak, hego euskal herritar askok harrotasunez begiratzen zien osasun sistemari. “Gurea bai ona”. Eta hala zen, espainiar Estatuko beste erkidego batzuetakoarekin alderatuz gero behintzat. Baina hori bukatu da: itxaron zerrenda luzeak eta baldintza kaskarragoak, pandemiaren aitzakiarekin kendu eta berreskuratu ez diren zerbitzuak.

Gizarte kohesionatuagoa eta justuagoa bermatzen duten zerbitzuak murrizten ari dira (herritarrok aseguru pribatuetara joateko, agian?), eta denon diruak aberatsak aberatsago bihurtzeko erabiltzen. Eta hori ez da naturala, ideologia eta erabaki politiko zehatz batzuen ondorio baizik. Hala den neurrian, gainera, arduradun jakin batzuk ere badaude.

Gizarte eredu hori ez da EHBilduk defendatzen duena, eta egunero erakusten dugu hori, kalean eta Udalean. Aberastasunaren banaketa justua defendatzen dugu, eta gehien duenak gehiago ordaintzea. Herritarren artean gero eta ezberdintasun handiagoak eragiten dituen eredu hau ezin dugu onartu, eta zerbitzu publiko duinak nahi ditugu, denentzat eskuragarriak. Badakigu irtenbidea komunitatean dagoela, eta horri begira ari gara lanean hainbat proiektutan, herritik herrira. Pausorik pauso eta lasai, baina iparra galdu barik. Eta emaitzak ikusten ari gara.



ARIN EGUNEKO UDAL ARRETA ZERBITZUA, GERTUAGO

Udal aldizkari honen bitartez, Udal Gobernu Taldeak lanean hasteko gonbidapena luzatu zigun. Beraiek hasi ote dira? Proiektu berririk proposatu edo garatu ote dute amaitzear dagoen legealdi honetan? Alkatearen azken bideoak ikusita, ez dakigu lanean ari ote diren, baina hauteskunde kanpainarekin hasiak direla agerian geratu da, urduri daude!

Gogora ekarri nahi ditugu, berriz ere, martxan dauden proiektuak aurreko legealdian hasitakoak direla, Zubieta-Masterreka edota futbol zelaia esaterako. Izan ere, EAJ-PNVtik orduan egin genuen lan horiei esker iritsi gara puntu honetara. EH Bilduren Udal Gobernuak zailtasunak ditu kudeaketarako, eta proiektu hauekin ikusi da berak proposatu ez dituen proiektuak bereganatzeko beharra duela. Horretan bai, aditu! Horietako beste adibide bat da ARIN Eguneako Udal Arreta zerbitzua.

2020ko abenduan eskatu genuen proiektua publikoki martxan jartzea, lanketarako mahaia sortzea eta 2021eko aurrekontuetan txertatzea; konpromisoa hartu zuten, baina hitzak haizeak eraman zituen. Azkenean, 2022ko aurrekontuetan, idatziz, jaso genuen zerbitzua martxan jartzeko konpromisoa. Eta, badirudi, ia 3 urteren ostean, pausuak emango direla.

Pasaden apirileko ohiko Osoko Bilkuran aho batez eman genion hasierako onarpena. Azkenean! Boni Laskurainen, itxita dagoen lokalean, kokatuko da zerbitzua eta kalte arinak dituzten bergararrentzat izango da. Hau da, 3. adineko bergararrentzat zerbitzu gehigarri bat eskainiko du zentroak: batetik, beraien garapenerako laguntza jasoko dute bertan, eta bestetik, horien familiek zaintzarako laguntza gehigarri bat izango dute. Berri ona, benetan!

Aurrekoari jarraikiz, 2022an hirugarren adinera bideratutako etxez-etxe gaueko zerbitzua zabaltzeko aukera aztertzeko konpromisoa ere hartu zuen EH Bilduren Udal Gobernuak. Helburu zuten 2023an garatu ahal izatea, baina ez dute inongo aurrerapausorik eman. Legealdia amaituko zaie lanean hasi aurretik!

A través de este mismo medio, el Equipo de Gobierno instó a EAJ-PNV a que empezará a trabajar. ¿Cuántos proyectos ha presentado o ha sido capaz de desarrollar EH Bildu? Queremos recordar que los proyectos que actualmente están en marcha comenzaron su andadura en la anterior legislación, tales como Zubieta-Masterreka o el campo de fútbol. Una vez más, queda demostrada la dificultad de EH BILDU para gestionar, ya que hace suyos los proyectos de los demás. Otro claro ejemplo es el servicio ARIN, el servicio de Centro de Día. En diciembre de 2020 desde EAJ-PNV pedimos que se pusiera en marcha el proyecto y parece que casi tres años después, se hará realidad. Veremos qué ocurre con el compromiso que adquirieron para poner en marcha el servicio nocturno de atención domiciliaria que propusimos.



GORKA ARTOLA ALBERDI

ALKATEA

Antolakuntza arloko
batzordekidea • Lurralde
arloko batzordekidea

alkatea@bergara.eus

AINHOA LETE ZABALETA

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko
lehendakaria • Berdintasuna •
Sustapen Ekonomikoa,
Berrikuntza, Ekintzailetasuna
eta Turismoa • Udala
Kudeaketa

alete@bergara.eus

**AITOR ARANZABAL
GALLASTEGI**

ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko
batzordekidea • Ogasuna •
Herritarrak arloko
batzordekidea • Kirola

aaaranzabal@bergara.eus

**KRISTINA MARKINA
IGARZA**

ZINEGOTZIA

Herritarrak arloko
batzordekidea • Kultura

kmarkina@bergara.eus

**JUAN LUIS GONZALEZ
LOPEZ**

ALKATEORDEA

Lurraldea arloko lehendakaria
• Hirigintza

jlgonzalez@bergara.eus

**NAGORE INURRATEGI
IRIZAR**

BOZERAMAILEA

ALKATEORDEA

Lurraldea arloko
batzordekidea • Auzoak •
Ingurumena

ninurrategi@bergara.eus

**EKAITZ ARANBERRI
ZEZEAGA**

ALKATEORDEA

Herritarrak arloko
lehendakaria • Euskara •
Gazteria • Komunikazioa •
Partaidetza • Hezkuntza

earanberri@bergara.eus

**JUANJO ASULA
TXURRUKA**

ZINEGOTZIA

Lurraldea arloko
batzordekidea • Obra eta
Zerbitzuak

jasula@bergara.eus

**ZIHORTZA MARZAN
USANDIZAGA**

ZINEGOTZIA

Gizarte Zerbitzuak

zmarzan@bergara.eus

**EAJ-PNV-KO UDAL
ORDEZKARIAK**

MAITE AGIRRE IRIBAR

Herritarrak arloko
batzordekidea
Antolakuntza arloko
batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

magirre@bergara.eus

**LANDER ARREGI
INTXAUSTI**

Lurraldea arloko batzordekidea

larregi@bergara.eus

**IRUNE GALARRAGA
EZENARRO**

Antolakuntza arloko
batzordekidea
Herritarrak arloko
batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**ANGEL MURGIONDO
MUGIKA**

Antolakuntza arloko
batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**ESTHER ORTIZ DE ZARATE
CARRILLO**

Herritarrak arloko
batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

JOSEBA ELOSUA URKIRI

Lurraldea arloko
batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

MARTIN ETXANIZ

Antolakuntza arloko
batzordekidea

eaj-pnv@bergara.eus

**PSE-EE-KO UDAL
ORDEZKARIA**

**ALBERTO ALONSO
MARTIN**

Antolakuntza arloko
batzordekidea
Lurraldea arloko
batzordekidea
Herritarrak arloko
batzordekidea

psoe-ee@bergara.eus 23

Zergatik sortu elkarteak?

Urte luzeetan gure inguruko basoetan ustiapen ekonomikora bideratutako pinu landaketak izan dira nagusi, inguruko paisaia guztiz eraldatzeraino. Xingola marroiaren gaitzaren ondoren landaketa hauen egoera eskasa ikusita (zuhaitz gaixoak, arraseko mozketak bidez soildutako sailak...) basoen ustiapen sisteman aldaketa bultzatzeko momentua zela iritzita erabaki genuen elkarteak sortzea.

Bertako basoak berreskuratzea da elkartearen helburua. Nola?

Bide ezberdinak jorratzen ditugu. Elkarteak berak erosi edo lagapen bidez eskuratutako sailetan zein Udalak erositakoetan esku-hartze ezberdinak egin daitezke. Kasuan kasuko neurriak hartzen dira sailaren egoeraren, kokapenaren... arabera.

Bioaniztasunaren galera globalari nola erantzun herritik?

Hainbat arrazoi daude bioaniztasunaren galeraren atzean eta neurri global eta ausartak behar dira horri aurre egiteko. Baina guztiok daukagu zeresana eta zeregina, eta bakoitzaren sukaldean hasten dira etxeko-lanak.

Sorreran aipatzen zenuten gutxi direla lur publikoak eta beharrezkoa dela horretan urratsak egitea.

Bai, lur publikoen kudeaketaren helburua gizarte osoaren onuraren aldeko ekimenetara bideratzea da. Zentzu horretan oso pozik gaude Bergarako Udalak, talde politiko guztien babesarekin, lur erosketa garrantzitsu bat egin duelako. Aurrerantzean ere horrelako ekimenekin jarraitzeko asmoa erakutsi du. Gu esku-hartzeetan laguntzeko prest eta gogotsu gaude.

Zer duzue esku artean?

Lagapenean daukagun Agirretxeberriko sailean mintegi txiki bat sortzen ari gara, inguruan bildutako ezkur eta hazietatik zuhaitz landareak lortzeko, dagoeneko landatu ditugu 400 ezkur inguru eta ilusio handia daukagu. Bestalde, sail horretan bertan iaz egindako landaketa osatuko dugu abendurako prestatzen ari garen landaketa jardunaldian. Udalarekin ere harremanetan ari gara beraiek eskuratutako sail batean pago-landaketa bat egiteko. Landaketa, hitzaldia, formakuntza saio eta horrelakoak jendartearentzako ekintza ikusgarrienak diren arren, lan isil eta etengabea dago egiteko, eta epe luzerako bidea da gurea.

Gaztetxoekin ere ari zarete. Inportantea da gaztetatik arlo honetan kontzientzia hartzea?

Duda barik. Beraien ardura izango da guk hasitako bide honi jarraipena ematea. Gaur egun ikastetxeetan ingurumenaren babesaren inguruko gaiak etengabe lantzen dituzte, eta guk, ahal dugun neurrian, gure laguntza eskaini nahiko genieke. Eragile ezberdinen arteko elkarlana nahitaezkoa dela uste dugu.

“Bioaniztasunaren galeraren aurrean bakoitzaren sukaldean hasten dira etxeko-lanak”



Ainhoa Agirrebeña,
Kukubaso elkarteko lehendakaria

2021. urteko maiatzean aurkeztu zen jendaurrean Kukubaso elkarteak. Basoen ustiapen sistema aldatzea helburu duen elkarteak une honetan 106 bazkide laguntzaile ditu (norbanakoak) eta 11 bazkide babesle (ikastetxe, enpresa, denda, taberna...).